

MOZIOA, PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUA, ARTE EDERRAK ERAIKINAREN INGURUAN EGINDAKO GESTIOAK DIRELA ETA

Ernesto Gascok, PSE-EE taldeko zinegotziak, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudia oinarri, **MOZIO** hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Duela aste batzuk jakin dugunez, SADEk (Arte Ederrak eraikinaren jabeak) 13,7 euroren kalteordaina eskatu dio Donostiako Udalari, Udalak hainbat baldintza ezarri dizkiola eta Eusko Jaurlaritzak higiezina kultur ondasun gisa sailkatu duela eta.

Hain zuzen, sozialistok ohartarazi genuen bezala, eraikinari ezarritako murrizketek eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak kultur ondasun gisa sailkatu izanak, Donostiako eraikin historikoari irteera bat eta erabilera publiko bat emateko ezein erakunderen planik eta finantza konpromisorik aurkeztu gabe, izugarri zaildu dute haren bideragarritasuna eta merkataritza ustiapena.

Arte Ederrak eraikina, hala, erakunde arteko katramila bat gehiago bihurtu da, udal gobernuak eta EAJK Donostiarako etorkizun proiektu ilusio-pizgarriak aurrera ateratzeko duten ezintasunaren etsenplu bat gehiago. Bestalde, SADEren jardunbideak aurrera egiten badu, gerta liteke udaleko diru-kutxarekin eta donostiar guztion diruarekin zigor handi bat ordaindu behar izatea.

Hori dela eta, hauxe da nire

MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari negoziatzea dezala Eusko Jaurlaritzarekin eta Arte Ederrak eraikinaren jabeekin, akordio bat lortzeko eta Udalaren arka jarritako ondare erantzukizunagatiko erreklamazioak kentzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari adostu dezala jabearekin eta euskal erakundeekin Arte Ederrak eraikin enblematikoa erabiltzeko eta berreskuratzeko proiektu bat.

Donostia, 2015eko apirilaren 23a

Ernesto Gasco,
PSE-EE taldearen bozeramailea.